

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/01/29

Ordua: 18:00ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EH Bildu

Olaia Lasa Olaziregi
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Iragorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaitz Mitxelena

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Kontu-hartzalea:

M^a Jesus Otaegi Irureta

Ezin etorria adierazi dute:

EH Bildu

Garazi Urdampilleta Astibia
Agustin Lekuona Irastorza

AZTERGAIAK/LABURPENA:

Hartutako erabakiak

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oiartzungo Udalaren arteko hitzarmena luzatzea erabaki zen.
3. Oiartzungo Udal eta Haurtzaro Ikastolaren arteko hitzarmenaren arabera mantenu-gastuetarako 2025eko dirulaguntza ordaintzea erabaki zen.
4. Oiartzungo Udal eta Soinuenea Fundazioaren arteko hitzarmena onartu zen.
5. Obra txikiak burutzeko aldez aurreko jakinarazpenaren araubidea arautzeko ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaison.
6. Oiartzungo HAPOren 3. aldaketa idaztea erabaki zen, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokionez.
7. Udal aurrekontuko 2024-02 epean preskribatu eta kobraezinak suertatu diren ordainagiriak aitorzea eta baja espedienteak izapideztea erabaki zen.
8. 2025. urterako Oiartzungo udal ikastola Partzuergoko ekarpen ekonomikoa onartu zen.
9. 2025eko kontratazio planaren onartu zen.
10. Oiartzungo Udaleko herritarrentzako arreta zerbitzu integrala arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaison.
11. Antolaketa eta Kontu Bereziien Batzorde Informatibo iraunkorraren maiztasuna aldatzea erabaki zen.
12. 2025eko udal egutegi instituzionala onartu zen.
13. 2024 urteari dagokion udal inventarioaren aldaketak eta eguneraketak onartu ziren.
14. Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.
15. Ez zen eskari-galderarik egon.

Esan-eginak eta erabakiak

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2024ko abenduaren 18an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 15 botorekin (EHBildu 11, EAJ/PNV 4)

-II-

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONDORIO EKONOMIKOAK ZABALDU ETA HASIERAKO INDARRALDIARI AMAIERA EMATEKO HITZARMENA

Alkateak Olaia Lasa Olaziregiri hitza ematen dio.

Lasa andreak adierazi du etxez-etxeko laguntza zerbitzua udal eskumena dela eta finantzazioan laguntzeko udalak Hitzarmen hau Foru Aldundiarekin sinatu zuela. Lau urte pasa direnez hitzarmen sinatu zenetik eta hau amaitu denez, urtarilean sinatuko da irailak 30arte iraungo duen hitzarmenaren luzapena. Hortaz, aurreikusten da irailean hitzarmen berria prestatuko duela Foru Aldundiak.

Hitzarmenaren xedea, eteko laguntza zerbitzuren Foru finantzaketa baldintzak definitzea dela argitu du. Gaur egun etxez-etxeko zerbitzuan 13 langile daude lanaldi osoz eta zerbitzuren %78, 25 udalak finantzatzen du, %13,64 Foru Aldundiak eta %8,11 onuradunek.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzalearen txostenaren baitan eta Herritarren Batzordeak 2025eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra: Oiartzungo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteen, udalerrian mendekoen kalifikazio dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmenaren luzapena onartzea, 2025eko irailaren 30arte, hitzarmenean ezarritako gainerako termino eta baldintza berdineta

Oihana Irastorza andrea Haurtzaro ikastolako langilea denez, ondoren landuko den gaian interes gatazka duela- batzarretik kanpora atera da.

-III-

OIARTZUNGO UDALA ETA HAURTZARO IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENAREN ARABERAKO 2025eko DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA MANTENU-GASTUETARAKO

Alkateak adierazten du, urteroko hitzarmen bat dela, Udala eta Ikastolaren artekoa eta dirulaguntza hau Udaleko aurrekontuan jasota dagoela.

Esandakoa kontutan hartuta, idazkari eta kontu-hartzailearen txostenak aztertuta eta Herritarra Batzordeak 2025eko urtarilaren 22an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Batzarrak, gehiengoz, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak 2018ko urtarilaren 8an sinatutako eta 2021eko abenduaren 22an eta 2023ko martxoaren 1ean Udal Osoko Bilkurak luzatutako eta modifikatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera, 2025. urteko Haurtzaro Ikastola, S.Coop.ko mantenu gastuak ordaintzeko 412.543,86 euroko dirulaguntza ordaintzea onartzea.

Haurtzaro Ikastola, S.Koop.-ak dirulaguntza hori erabiliko du atezañaren soldatu ordaintzeko eta ondorengo kostea estaltzeko: mantenu konponketa txikiak, argindarra, erregaiak, igogailua eta berogailuaren mantenua eta eraikinaren garbiketa.

Edonola ere, dirulaguntza bikoitza eta gain-finantzazioa ekidite aldera:

- udalaren dirulaguntza Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin dagoen itunaren ondorioz jasotako dirulaguntzaren ondorio desberdinatarako erabili beharko da, zuriketan justifikatu beharko dena; eta, era berean,
- udalaren laguntzaren kopurua dagokion moduan justifikatzeaz gain, justifikazio-kontuetan jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztiak zerrendatu beharko dira.

Hitzarmenaren 1.1.d) klausularen arabera, dirulaguntza hori hamabi zatitan ordainduko du Udalak, hilero Haurtzaro Ikastolari diru-ekarpena eginez.

Ordainketa, udal aurrekontuko 1 0312.481.323.00.02 2025 (AD-131-2025) eta 1 0312.481.324.00.02 2025 (AD-132-2025) diru-atalen kontura bideratuko da.

Bozketa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia	1	Oihana Irastorza Gonzalez

Gaia gehiengoz onartu da aldeko 14 botorekin (EHBildu eta EAJ/PNV) eta abstentzia batekin (EHBildu taldeko Oihana Irastorza Gonzalez zinegotziarena, Haurtzaro Ikastolako langilea delako.)

Bozka egin ondoren Oihana Irastorza Gonzalez arretora sartzen da.

OIARTZUNGO UDALA ETA SOINUENEA FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA: 2025eko DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA ETA 2024KO AZKEN ORDAINKETA EGITEA

Alkateak dio, Oiartzungo Udala eta Soinuenea Fundazioaren arteko hitzarmenaren xedea fundazioaren gastuetarako eta ekintzak aurrera eramateko dirulaguntza ematea dela. Gehitu du honek eragingo duen gastuari aurre egiteko udal aurrekontuan diru atala jasota badagoela, 111.600 €koa. Aipatu dirulaguntza, hiru zatitan ordainduko dela argitu du.

Aipatutakoa kontutan hartuta, idazkari eta kontu-hartzalearen txostenak ikusita eta Herritarrok Batzordeak 2025eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udala eta Soinuenea Fundazioaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea (eranskinean jaso da).

Bigarrena.- Soinuenea Fundazioari 111.600 euroko dirulaguntza ematea, hitzarmenean jasotako xedea eta helburua betetzeko. Dirulaguntza hori bi aldeek sinatutako lankidetza-hitzarmenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorean eta lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ordainduko eta justifikatuko da, egutegi honen arabera, hain zuzen ere:

- Hitzarmena sinatzean, otsailean: kopuru osoaren % 50a: 55.800 €.
- Abuztuan kopuru osoaren % 30a: 33.480 €
- 2026ko otsailean, kopuru osoaren % 20a: 22.320 € (2025 urteko gastuen justifikazioa aurkeztean).

Hirugarrena.- 111.600 euroko gastua onartzea, indarrean dagoen udal aurrekontuko 0331.481.333.00.08 (AD-105-2025) eta 0331.481.334.00.03 (AD-106-2025) partidei egoztea, eta dirulaguntza ordaintzea aurreko egutegiaren arabera.

Laugarrena.- 24/03/20ko dataz Udalak onartutako erabakiaren ondorioz, bi aldeek 2024ko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmenaren 9. Klausularen arabera, interesatuak urte horretako gastuak justifikatutakoan Udalak dirulaguntza horren % 20a ordaintzeko konpromisua du. Soinuenea Fundazioak 2024ko dirulaguntza justifikatzen duten agiriak aurkeztu ditu udal erregistroan 2025eko urtarrilaren 7an. 2024 urteko justifikazio-kontu hau onartzea eta aipatutako erabakia betez, 2024ko dirulaguntzaren azken % 20a, 21.770,82 € ordaintzea Soinuenea Fundazioari udal aurrekontuko 1 0331.481.333.00.08 2024 eta 1 0331.481.334.00.03 2024 (AD-736/2024, AD-737/2024 eta AD-3584/2023) kontu-sailaren kontura .

Alkatearen hitzetan, proposamena lanketaren ondorio bat da eta honek hainbat helburu ditu. Lehena, herritarrek obra txikiak egin nahi dituztenean, beraien erosotasunari begira, administrazioan egin beharreko prozedura azkartzea. Bigarrena, hirigintza sailean dagoen lan karga arintzea.

Bestalde alkateak dio, 2022. urtean obra txikiak egiteko 150 baimen eskatu zirela, 2023an 171 eta 2024ean 129.

Ohiko obrak izaten direla, adibidez, leihoa aldatzea. Egiturari eragiten ez dien lan txikiei eragingo die, ulertzen baita prozedura arinago baten bidez baimen eskaerak tramitatu daitezkeela.

Idazkariak hartzen du hitza. Adierazten du, legeak aginduta aurretiazko kontsulta publikoa egin zela eta epe horretan ez dela inongo alegaziorik jaso, hala ere, hasierako onarpena ematen zaio eta beste 30 egunez erakustaldi publikoan egongo da, GAO-n eta udaleko web orrian argitaratuak. Alegaziorik jasotzen ez bada, gaia Plenora berriro ekarri gabe, behin betikoz onartutzat joko da. Alegaziorik badago, Plenoan aurkeztuko da, alegazioak ebazteko eta, hala badagokio, behin betiko onarpena emateko.

Guzti hau kontutan hartuta eta Lurralde Batzordeak 2025eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehena.- Hasierako onespina ematea Oiartzungo udalerrian obra txikiak burutzeko aldez aurreko jakinarazpenaren araubidea onartzeko ordenantzari, expedientean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, administrazio-expediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiekin Udal bulegoetan expedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkezta ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Hirugarrena.- Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Udalbatzak berariaz erabaki beharrik gabe, eta Ordenantza isilbidez behin betiko onartzeko erabakia, testu osoarekin, udaleko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, guztiekin horren berri izan dezaten.

Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan [<https://www.oiartzun.eus>]

-VI-

OIARTZUNGO HAPOREN 3. ALDAKETA, UDALERRIKO ERABILERA TURISTIKOAK ETA TURISMO-OSTATUKO ESTABLEZIMENDUEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI DAGOKION ORDENANTZA ALDATZEA

Alkateak dio, turismoa badela garapen agentziatik urteetan lantzen den sektore bat eta hori aintzat hartuta, azken urteetako bilakaera ezaguna dela. Jakina da Donostiarekin mugakide diren herrietara ari direla zabaltzen turismoak dakartzan ondorioak edo behintzat turista gehiago ikusten direla eta horrela baieztagatzen dute Oarsoaldeako garapen agentziako datuek.

Establezimenduei dagokionez, Oiartzunen kokatzen dira eskualdean dauden hotel, landetxe eta kanping kopuru handiena eta hau betidanik gertatu izan dela.

Bilakaera bat ikusten da nagusiki turismo-apartamentuei dagokienez, nabarmentzekoa Oreretan gertatuko hazkuntza, 9 pisu turistiko izatetik 30 pisu turistiko izatera pasa direla. Honekin ulertzen da, agian eremu tensionatu izendatzeko lanketa egiten ari zela Oreretako Udala eta horrek eragin duela hori gertatu aurretik hainbat herritarrek horrelako izendapen bat lortu nahi izatea beraien etxeetarako.

Hortaz, Oiartzungo udalerrian etxebizitza turistikoak jartzeko baimen eskaera gehiago egon daitezkeela ikusirik, Alkateak azpimarratzen du inongo baimenik eman aurretik gogoeta bat egiteko momentua dela.

Bestalde, kontutan eduki behar da Spainako konstituzioaren arabera, espainiar nazionalitatea duten guztiak etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea dutela eta Etxebizitzaren Euskadiko Legeak eskubide subjetiboa dela aitortzen duela. Beraz, bi puntu daude kontutan edukitzeko, alde batetik, turismoaren garapena eta horrekin egin daitekeen jarduera ekonomikoa eta bestetik, etxebizitza eskubidea bermatzeko Udalak daukan betebeharra.

Horiek horrela, lehenik, HAPO-an aldaketa egiteko proposamena egiten da eta bigarrenik, bitarte horretan egiten diren lizenzi eskaerak suspensioan uztea. Jadanik salbuetsita geratzen dira, hainbat hotel egiteko egindako eskaerak eta landa eremua ere, hau lehendik ondo arautua dagoelako.

Idazkariak adierazten du, prozedurari dagokionez gaiaren inguruko ordenantza berri bat egin beharrean HAPO-a dela aldatu beharrekoa. Donostiako udala saiatu zen ordenantza bidez gai hau garatzen, baina epaitegiak adierazi zuten gaia Plan Orokorrari dagokiola eta beraz, HAPO-a dela aldatu beharrekoa, hortaz, Donostiako udalak egindako ordenantza atzera bota zuten.

Janire Mitxelena Lekuonak, EAJ alderdiko bozeramaileak, adierazi du beraien ustez, Oiartzungo turismoaren hazkundeak erregulazio egokia eta planifikatua eskatzen du. Badakitela beharrezkoa dela etxebizitza eskuratzeko aukera bermatzea, herritarren bizi-kalitatea babestea eta garapen turistikoa jasangarria izango dela ziurtatzea. Ildo horretan, gai horri heltzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspena proposatzean gobernu-taldeak egindako ahalegina baloratzen dutela.

Hala ere, uste dutela lizenziak urtebetetan erabat etetea neurri zorrotzegia izan daitekeela eta alboondorioak izan ditzakeela, baina ez direla behar bezala aztertu. Beraien ustez, gai honi heltzeko modurik onena datu zehatzetan eta gai honetan inplikatutako sektore guztiak elkarrikitan oinarritutako erregulazio orekatu baten bidez egitea litzatekeela:

1.-Azterketa tekniko zehatzago baten beharra

Aurkeztutako txosten teknikoak erregulazioa justifikatzen du, Oiartzungo turismo-ostatuen kopuruaren bilakaeran eta etxebizitza eskuratzean duen eraginean oinarrituta. Hala ere, faltan botatzen dute neurri horrek funtsezko sektoreetan, hala nola ostalaritzan, merkataritzan eta landa-turismoan izango duen eragin ekonomikoari buruzko azterketa xehatua.

Eratbateko geldialdia aplikatu aurretik, uste dute funtsezkoa dela azterketa tekniko osatuagoa egitea, ostateko kopurua ez ezik, honako hauek ere ebalutzeko:

- Nola eragiten dion turismoak Oiartzungo etxebizitza-merkatuari.
- Zer eragin ekonomiko duen tokiko sektoreetan.
- Turismo-ostatu moten artean desberdintasunik dagoen eta horiek modu bereizian nola arautu.

2.- Hotelak eta horrek etxebizitzan duen eragina: erregulazio bereizia

Gehien kezkatzen dituen alderdietako bat da lizenziak etetea planteatzen ari direla, ostateko turistikoen tipologiak bereizi gabe. Ildo horretan, ez dago ebidentziarik esateko hotelek eragin zuzena dutenik etxebizitzaren prezioan edo epe luzerako alokairuen eskuragarritasunean, pisu turistikoen ereduaren guztiz desberdina den eredu batean jarduten baitute.

Hala eta guztiz ere, etete-neurriak ostatu turistiko berri guztiei eragiten die, hiru kasu zehatzetan izan ezik:

- Hotela Lanbarrenen,
- Bidebitarten hotela egiteko proiektua,
- Elizalde hotela handitzeko aukera.

Erregulazioaren helburu nagusia turismoak etxebizitzan duen eragina geldiaraztea bada, ez du zentzurik hotelei murrizketak ezartzeak, ez baitute eraginik arazo horretan. Beraz, erregulazioan bereizketa argia egitea eskatzen dute, justifikazio teknikorik ez duten eta udalerriaren garapen ekonomikoari kalte egin diezaioketen neurriak aplikatzea saihestuz.

3.- Turismoa aukera gisa, ez arazo gisa bakarrik

Nahiz eta egia izan kontrolik gabeko turismoak arazoak sor ditzakeela, udalerriaren garapenerako aukera ere izan daiteke. Ondo kudeatutako turismo batek:

- Tokiko ostalaritza eta merkataritza dinamizatzea.
- Nekazaritza- eta landa-sektoreari diru-sarrera osagarriak ematea.
- Oiartzungo kultura- eta natura-ondarearen sustapena bultzatzea.

Horregatik, uste dute ez dela turismoa bere osotasunean deabruntu behar, baizik eta modu adimentsuan arautu behar dela, komunitateari balioa ematen dioten eta etxebizitzaren eta herritarren bizikidetzaren gaineko ondorio negatiboak saihesten dituzten ereduak bultzatzuz.

4.- Lizentziak erabat eteteko alternatibak

Geldialdi orokor baten ordez, ikuspegi malguago bat proposatzen dute, honako puntu hauetan oinarritua:

- Zonen araberako erregulazioa, eremu jakin batzuen babesari lehentasuna emanez, beste eremu batzuen garapena geldiarazi gabe.
- Turismo-ostatu berrietarako kalitate- eta iraunkortasun-baldintzak.
- Gehienezko plaza-kopurua zehaztea, saturazioa saihesteko, lizentzia berriak oro har debekatu beharrik gabe.
- Argi eta garbi bereiztea etxebizitza turistikoak eta hotelak, etxebizitzaren merkatuari eragiten ez dioten hotel-proiektuei beharrezkoak ez diren murrizketak saihesteko.
- Gai honetan eragina duten sektore guztiei entzutea behin betiko erabakia hartu aurretik.

5.- Gardentasuna eta benetako parte-hartza prozesuan

Txostenak erregulazio hori garatzeko partaidetza-prozesu bat sortzea aipatzen du, eta hori ezinbestekotzat jotzen dute. Hala ere, ziurtatu nahi dute parte-hartze hori ez dela izapide formal hutsa, baizik eta benetako elkarrizketa bat, non sektore guztiekin hitza izango duten.

Horregatik, honako hau eskuatu dute:

1. Lan-mahaiaik deitza merkatartzako, ostalaritzako, nekazaritza-sektoreko, turismo-ostatuen jabeetako eta auzo-elkartetako ordezkariekin.
2. Eragin ekonomikoari buruzko txosten bat argitaratzea, edozein neurri behin betiko onartu aurretik.
3. Onartutako edozein arauketa malgua eta emaitzen arabera berrikusteko modukoa izango dela bermatzea.

Ondorioa bezala, erregulazio bat bai, baina orekarekin

Beraien taldetik ez daude Oiartzungo turismoaren erregulazio baten aurka. Beraien ustez, beharrezko da hazkundea antolatzea, ondorio negatiboak saihestea eta turismo-eredua herritarren ongizatearekin bateragarria dela bermatzea.

Baina ezin dira ados egon lizentziaren erabateko etetearekin azterketa zehatzagorik egin gabe eta gai honetan eragina duten sektore guztien benetako parte-hartzerek gabe. Gainera, berriro dio hotelak ez direla etxebizitza turistiko gisa tratatu behar, ez baitute inolako eraginik etxebizitzan. Babes, jasangarritasun eta garapen ekonomikoa uztartzen dituen erregulazio eredu baten aldeko apustua egiten dugu, Oiartzunek bizitzeko zein bisitatzeko tokia erakargarria izaten jarraituko duela ziurtatuz.

Horregatik, araudi hori datu, elkarritzeta eta etorkizuneko ikuspegiarekin egin dadila eskatzen dute.

Beraz, Mitxelena andreak amaitzeko adierazi du puntu honetan abstentzu egingo direla.

Alkateak hitza hartzen du eta EAJ-tak esandakoari erantzunez, bi puntu azpimarratuz.

Lehena, txostenetan jasotzen den bezala, hainbat salbuespen daudela, horietako bat, hotelak eraikitzeko interesa jaso diren eskaerak, industria guneetan kokatuta daudenak, hauen prozedurak aurrera jarraituko dutela.

Bigarrena, azken urteetan ez dela pisu turistikoak jartzeko eskaerari jaso, beraz, momentuz ez dagoela eskaerarik suspensioan. Proposamen honen helburua egoerari aurre hartzea dela.

Azkenik, HAPO-aren edozein aldaketak parte hartze prozesua eskatzen duenez eta jorratuko diren gaiak pisuzkoak direnez, hau da, turismoaren bultzada eta etxebizitza eskubidea, burutuko den parte hartze prozesua landua izango dela, iritzi desberdinez osatua.

Guzti hau kontutan hartuta eta Lurralde Batzordeak 2025eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Batzarrak, gehiengoz, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Ordenantzaren aldaketa puntuala idaztea erabakitzea eta 3. aldaketarako prozedura hastea, “udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokiona”.

Bigarrena.- Prozedurak agintzen duen Herritarren Partaidetzarako Programa onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren egoitza elektronikoan (www.oiartzun.eus) argitaratzea.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko organoei informazioa eskatzea dauden arriskuei eta ingurumen-baldintzatzaleei, kultura-ondarearen babesari eta natura ingurumenari buruz, antolamenduak errespetatu beharrekoak badira.

Laugarrena.- 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari Legearen 85. artikuluaren arabera, urtebetetze aipatu turismo-ostatuak baimentzeko lizentziak bertan behera uztea erabakitzenean da, honako xehetasunarekin: Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorean (87 zk.ko GAO, 2015/05/12koan) hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren sailkapena duten lurretan, eremu hauek salbuetsita: ELI-3B, LAN-1A, ARR-3A eta LIN-8”.

Bostgarrena.- Alkatetzari ahalmena ematea, plangintzako irizpideak eta helburuak finkatu arte, gainerako izapideekin jarraitzeko.

Bozketa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	11	EHBildu,
Aurka		
Abstentzia	4	EAJ/PNV

Gaia gehiengoz onartu da aldeko 11 botorekin (EHBildu) eta 4 abstentzioekin (EAJ/PNV)

-VII-

2024-02 PRESKRIBATU ETA KOBRAEZINEN ZERRENDAK

Oihana Irastorza Gonzalezek hartzen du hitza. Zergek kobratzeko prozedura bat jarraitu dutela adierazi du, baina errezipo hauek kobraezinak bilakatu direnez, zergen errezipo horiei baja ematea proposatzen da.

Aipatzekoa da, errezipoen gehiengoa jarduerei dagokiela hau da, disolbatutako enpresek ordaindu beharrekoa.

Hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzordeak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- Zerrendatutako honako baja espedienteak izapidetzea:

PRESKRIBATU ETA KOBRAEZINAK AITORTZEA

KOBRAEZINAK

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZATIA	ZENB. NAGUSIA
ABURUZA,AZURMENDI,UNAI	73234933N	IBILG.	2021	1	19	0	19,63 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	IBILG.	2020	1	206	0	93,48 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	IBILG.	2023	1	206	0	96,31 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2020	1	310022G	0	739,00 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2020	1	312865Y	0	444,77 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2021	1	310022G	0	739,00 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2021	1	312865Y	0	444,77 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2022	1	310022G	0	739,00 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2022	1	312865Y	0	444,77 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2023	1	310022G	0	739,00 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2023	1	312865Y	0	444,77 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2024	1	310022G	0	739,00 €
ALANPA 2006 SL	B20922134	J.E.Z.	2024	1	312865Y	0	444,77 €
AUTOMAZUR SL	B75161430	J.E.Z.	2020	1	483003	0	873,54 €
AUTOMAZUR SL	B75161430	J.E.Z.	2021	1	483003	0	873,54 €
AUTOMAZUR SL	B75161430	J.E.Z.	2022	1	483003	0	873,54 €
AUTOMAZUR SL	B75161430	J.E.Z.	2023	1	483003	0	873,54 €
AUTOMAZUR SL	B75161430	J.E.Z.	2024	1	483003	0	873,54 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	URA-ESTOL.	2017	1	1135	0	133,93 €

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZAT IA	ZENB. NAGUSIA
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	URA-ESTOL.	2017	2	1140	0	256,59 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	URA-ESTOL.	2017	3	1142	0	137,15 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	URA-ESTOL.	2018	1	1146	0	134,28 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	URA-ESTOL.	2018	2	1141	0	134,28 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	URA-ESTOL.	2018	3	1144	0	154,64 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	O.H.Z. HIRIT.	2017	1	5040302V	0	264,43 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	O.H.Z. HIRIT.	2018	1	5040302V	0	265,15 €
CRILEMO III 2005 SL	B63730949	O.H.Z. HIRIT.	2019	1	5040302V	0	271,39 €
EXPERTSOFA SL	B71058788	J.E.Z.	2019	1	411816	0	612,97 €
EXPERTSOFA SL	B71058788	J.E.Z.	2020	1	411816	0	612,97 €
EXPERTSOFA SL	B71058788	J.E.Z.	2021	1	411816	0	612,97 €
EXPERTSOFA SL	B71058788	J.E.Z.	2022	1	411816	0	612,97 €
EXPERTSOFA SL	B71058788	J.E.Z.	2023	1	411816	0	612,97 €
EXPERTSOFA SL	B71058788	J.E.Z.	2024	1	411816	0	612,97 €
Francisco Echeverria Lacambra y otro CB	E75156109	J.E.Z.	2018	1	463357	0	343,89 €
Francisco Echeverria Lacambra y otro CB	E75156109	J.E.Z.	2019	1	463357	0	343,89 €
Francisco Echeverria Lacambra y otro CB	E75156109	J.E.Z.	2020	1	463357	0	343,89 €
Francisco Echeverria Lacambra y otro CB	E75156109	J.E.Z.	2021	1	463357	0	343,89 €
FRIOIARTZUN SL	B20445615	IBILG.	2018	1	3737	0	150,05 €
FRIOIARTZUN SL	B20445615	IBILG.	2018	1	3738	0	211,55 €
FRIOIARTZUN SL	B20445615	IBILG.	2019	1	3699	0	154,57 €
FRIOIARTZUN SL	B20445615	IBILG.	2020	1	3998	0	155,81 €
HOTEL LINTZIRIN SL	B20102927	J.E.Z.	2021	1	63296	0	331,87 €
HOTEL LINTZIRIN SL	B20102927	J.E.Z.	2021	1	65658	0	3.623,95 €
HOTEL LINTZIRIN SL	B20102927	J.E.Z.	2021	1	65661	0	280,57 €
HOTEL LINTZIRIN SL	B20102927	J.E.Z.	2021	1	198386	0	794,65 €
IGLESIAS DOMINGUEZ RAUL	72468986B	ISUNA	2018	1	1065	0	80,00 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2017	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2018	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2019	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2020	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2021	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2022	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2023	1	84973	0	136,84 €
INDUSTRIAS ELECTRICAS EASO CB	E20442844	J.E.Z.	2024	1	84973	0	136,84 €
LOPEZ,JIMENEZ,ANTONIO	15939190Y	IBILG.	2011	1	5598	2	135,77 €
LOPEZ,JIMENEZ,ANTONIO	15939190Y	IBILG.	2012	1	5984	0	141,68 €
LOPEZ,JIMENEZ,ANTONIO	15939190Y	IBILG.	2013	1	6051	3	139,95 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2013	1	2532	0	16,72 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2013	2	2528	0	16,72 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2013	3	2552	0	19,99 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTO.	2014	1	2561	0	16,25 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2014	2	2642	0	17,38 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2014	3	2679	0	17,38 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2015	1	2679	0	14,68 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	URA-ESTOL.	2015	2	2687	0	14,68 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	O.H.Z. HIRIT.	2013	1	3127405G	3	190,14 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	O.H.Z. HIRIT.	2014	1	3127405G	0	358,82 €

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZATIA	ZENB. NAGUSIA
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	O.H.Z. HIRIT.	2015	1	3127405G	0	358,82 €
LOPEZ,SANCHA,IGNACIO	34107175S	GAINB.	2017	1	27	2	1.486,28 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2011	1	5904	6	8,07 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2012	1	6292	6	112,37 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2013	1	6357	0	145,08 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2014	1	6165	0	147,25 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2015	1	6341	0	147,25 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2016	1	6505	0	147,54 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2017	1	6601	0	147,54 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2018	1	6776	0	150,05 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2019	1	6884	0	154,57 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2020	1	7485	0	155,81 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2021	1	7001	0	155,81 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2022	1	6964	0	158,15 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2023	1	7291	0	160,52 €
MARTINEZ,JIMENEZ,PAMELA	72473511M	IBILG.	2024	1	7417	0	162,93 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2013	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2015	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2016	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2017	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2018	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2019	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2020	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2021	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2022	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2023	1	151997	0	147,79 €
MELVACAS CONSTRUCCIONES SL	B20537544	J.E.Z.	2024	1	151997	0	147,79 €
MENDEZ,FERREIRO,FRCO JAVIER	79320849J	Petxa-HIRIG.	2012	1	108	2	411,28 €
MULTISERVICIOS MUTILVA II SL	B31763980	J.E.Z.	2019	1	251531	0	394,13 €
MULTISERVICIOS MUTILVA II SL	B31763980	J.E.Z.	2020	1	251531	0	394,13 €
MULTISERVICIOS MUTILVA II SL	B31763980	J.E.Z.	2021	1	251531	0	394,13 €
MULTISERVICIOS MUTILVA II SL	B31763980	J.E.Z.	2022	1	251531	0	394,13 €
MULTISERVICIOS MUTILVA II SL	B31763980	J.E.Z.	2023	1	251531	0	394,13 €
MULTISERVICIOS MUTILVA II SL	B31763980	J.E.Z.	2024	1	251531	0	394,13 €
GUZTIRA KOBRAEZINAK							33.478,88 €

KOBRAEZINAK DESEGITEAGATIK

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZATIA	ZENB. NAGUSIA
INGASCA SL	B20428074	ISUNA	2022	1	1461	0	20,00 €
INGASCA SL	B20428074	ISUNA	2022	1	1462	0	20,00 €
TALLERES ERROTA SL	B20073474	J.E.Z.	2021	1	291118	0	341,95 €
TALLERES ERROTA SL	B20073474	J.E.Z.	2022	1	291118	0	341,95 €
TALLERES ERROTA SL	B20073474	J.E.Z.	2024	1	291118	0	341,95 €
GUZTIRA KOBRAEZINAK DESEGITEAGATIK							1.065,85 €

KOBRAEZINAK ERREFERENTZIAGATIK

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZATI A	ZENB. NAGUSIA
ALAGUMENDI CB	E20598066	J.E.Z.	2022	1	155309	0	651,40 €
ALAGUMENDI CB	E20598066	J.E.Z.	2023	1	155309	0	651,40 €
ALAGUMENDI CB	E20598066	J.E.Z.	2024	1	155309	0	651,40 €

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZATI A	ZENB. NAGUSIA
BAIAKOA SL	B20640439	J.E.Z.	2021	1	427473	0	823,44 €
BURDINTSU	B20507521	JEZ	2021	1	110483E	0	1.865,79 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	IBILG.	2020	1	1907	0	155,81 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	J.E.Z.	2019	1	149831	0	957,95 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	J.E.Z.	2019	1	149832	0	147,79 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	J.E.Z.	2020	1	149831	0	957,95 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	J.E.Z.	2020	1	149832	0	147,79 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	J.E.Z.	2021	1	149831	0	957,95 €
CANALIZACIONES Y LINEAS SL	B20181590	J.E.Z.	2021	1	149832	0	147,79 €
EASO ELECTRICIDAD SL	B20783338	J.E.Z.	2021	1	247083	0	574,77 €
ECOPRESA SL	B20557575	J.E.Z.	2021	1	138296	0	996,69 €
ELIZEGI SA	A20214409	IBILG.	2016	1	3216	0	180,63 €
ELIZEGI SA	A20214409	IBILG.	2020	1	3431	0	189,43 €
ELIZEGI SA	A20214409	IBILG.	2021	1	3216	0	189,43 €
ELIZEGI SA	A20214409	IBILG.	2022	1	3431	0	192,27 €
ELIZEGI SA	A20214409	IBILG.	2023	1	3216	0	195,15 €
ELIZEGI SA	A20214409	IBILG.	2024	1	3431	0	198,08 €
Emodi Business Software Solutions SL	B20915039	J.E.Z.	2021	1	307477	0	447,41 €
Emodi Business Software Solutions SL	B20915039	J.E.Z.	2021	1	410608	0	398,62 €
ETXE ONENA 2012 SL	B75061085	J.E.Z.	2021	1	390996	0	1.139,29 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	IBILG.	2019	1	3482	0	278,23 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2018	1	349102	0	626,23 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2018	1	349103	0	215,07 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2019	1	349102	0	626,23 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2019	1	349103	0	215,07 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2020	1	349102	0	626,23 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2020	1	349103	0	215,07 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2021	1	349102	0	626,23 €
EURO MOBEL INSTALACIONES SL	B20996468	J.E.Z.	2021	1	349103	0	215,07 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	IBILG.	2019	1	3483	0	106,61 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	IBILG.	2020	1	3771	0	107,46 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	J.E.Z.	2018	1	315130	0	215,07 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	J.E.Z.	2019	1	315130	0	215,07 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	J.E.Z.	2020	1	315130	0	215,07 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	J.E.Z.	2021	1	315130	0	215,07 €
EUROMARK 2000 SL	B20450052	J.E.Z.	2023	1	315130	0	215,07 €
EUSKALTEKNIK SL	B20555793	J.E.Z.	2018	1	137807	0	136,84 €
EUSKALTEKNIK SL	B20555793	J.E.Z.	2019	1	137807	0	136,84 €
EUSKALTEKNIK SL	B20555793	J.E.Z.	2020	1	137807	0	136,84 €
EUSKALTEKNIK SL	B20555793	J.E.Z.	2021	1	137807	0	136,84 €
EUSKALTEKNIK SL	B20555793	J.E.Z.	2023	1	137807	0	136,84 €
Eusko Sport Kirol Material Salmenta SL	B20824983	J.E.Z.	2021	1	264157	0	999,90 €
Eusko Sport Kirol Material Salmenta SL	B20824983	J.E.Z.	2023	1	264157	0	999,90 €
EUSKO TRADING SL	B20837191	J.E.Z.	2021	1	296126	0	742,41 €
FRUTAS KURSAAL SL	B20901591	J.E.Z.	2021	1	301450	0	1.157,07 €
GRAMARMAK SL	B20714614	J.E.Z.	2021	1	216007	0	780,00 €
HOTELES NORTEÑOS UNIDOS SL	B95672044	J.E.Z.	2021	1	407922	0	3.029,91 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	4910	0	216,40 €

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZATI A	ZENB. NAGUSIA
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	4911	0	154,57 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	4912	0	154,57 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	4913	0	154,57 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2020	1	5352	0	106,67 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2020	1	5353	0	155,81 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2020	1	5354	0	155,81 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2021	1	4995	0	218,13 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2021	1	4996	0	155,81 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2021	1	4997	0	155,81 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2021	1	4998	0	155,81 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2022	1	5022	0	221,41 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	5023	0	158,15 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	5024	0	158,15 €
HUREMOVIC,DURAKOVIC,MIRSAD	X3034217B	IBILG.	2019	1	5025	0	158,15 €
MARTINEZ,JIMENEZ,JUAN	44155538T	IBILG.	2019	1	6877	0	11,37 €
MARTINEZ,JIMENEZ,JUAN	44155538T	IBILG.	2019	1	6879	0	216,40 €
MARTINEZ,JIMENEZ,JUAN	44155538T	IBILG.	2019	1	6882	0	154,57 €
MARTINEZ,JIMENEZ,JUAN	44155538T	IBILG.	2019	1	6883	0	210,05 €
OTAEGUI,QUERALT,ANDER	72502356P	IBILG.	2019	1	7909	0	154,57 €
OTAEGUI,QUERALT,ANDER	72502356P	IBILG.	2019	1	7910	0	11,37 €
OTAEGUI,QUERALT,ANDER	72502356P	IBILG.	2019	1	7911	0	216,40 €
OTAEGUI,QUERALT,ANDER	72502356P	IBILG.	2019	1	7912	0	40,78 €
OTAEGUI,QUERALT,ANDER	72502356P	IBILG.	2019	1	7913	0	92,74 €
OTAEGUI,QUERALT,ANDER	72502356P	IBILG.	2019	1	7914	0	154,57 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2018	1	10211	0	150,05 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2018	1	10212	0	90,65 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2018	1	10213	0	76,16 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2018	1	10214	0	183,70 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2018	1	10215	0	211,55 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2018	1	10216	0	205,32 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2019	1	10433	0	154,57 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2019	1	10434	0	92,74 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2019	1	10435	0	77,92 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2019	1	10436	0	187,93 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2019	1	10437	0	216,40 €
UBIRIA,MICHELENA,JOSE ESTEBAN	15942207X	IBILG.	2019	1	10438	0	210,05 €
GUZTIRA KOBRAEZINAK ERREFERENTZIAGATIK							31.744,15 €

PRESKRIBATUAk

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZAT	ZENB. NAGUSIA
FARKAS,,JOZSEF	X6479798P	IBILG.	2017	1	3602	0	147,54 €
FARKAS,,JOZSEF	X6479798P	IBILG.	2018	1	3596	0	150,05 €
FARKAS,,JOZSEF	X6479798P	IBILG.	2019	1	3576	0	154,57 €
FARKAS,,JOZSEF	X6479798P	IBILG.	2020	1	3876	0	155,81 €
Galparsoro,Garmendia,Angel M	15968631F	IBILG.	2017	1	3835	0	147,54 €
Galparsoro,Garmendia,Angel M	15968631F	IBILG.	2018	1	3846	0	150,05 €
Galparsoro,Garmendia,Angel M	15968631F	IBILG.	2019	1	3809	0	154,57 €

IZENA	NAN/IFZ	ZERGA	URT.	EP.	AGIRIA	ZAT	ZENB. NAGUSIA
Galparsoro,Garmendia,Angel M	15968631F	IBILG.	2020	1	4109	0	155,81 €
GARCIA,ALCALA,RAQUEL	44157813K	GAINB.	2019	1	161	0	87,27 €
GARCIA,ALCALA,RAQUEL	44157813K	GAIN.	2019	1	162	0	121,19 €
GAURSA MOTOR SL	B75072439	ISUNA	2019	1	630	0	8,75 €
Gaytan De Ayala ,Londaiz, Alfonso	14987700A	O.H.Z. landalur	2018	1	314696	0	8,14 €
Gaytan De Ayala ,Londaiz, Alfonso	14987700A	O.H.Z. Landalur	2019	1	314696	0	8,26 €
Guipuzcoana de Comercio Exterior SL	B20049144	IBILG.	2016	1	4685	0	267,43 €
Guipuzcoana de Comercio Exterior SL	B20049144	IBILG.	2017	1	4648	0	267,43 €
Guipuzcoana de Comercio Exterior SL	B20049144	IBILG.	2018	1	4734	0	271,98 €
Guipuzcoana de Comercio Exterior SL	B20049144	IBILG.	2019	1	4758	0	278,23 €
Guipuzcoana de Comercio Exterior SL	B20049144	IBILG.	2020	1	5202	0	280,46 €
INEKA EKITALDIAK SL	B20989232	IBILG.	2017	1	4963	0	102,47 €
INEKA EKITALDIAK SL	B20989232	IBILG.	2018	1	5053	0	104,21 €
INEKA EKITALDIAK SL	B20989232	IBILG.	2019	1	5094	0	106,61 €
INMOCENTER NETWORKS SL	B20719514	IBILG.	2018	1	5062	0	150,05 €
INMOCENTER NETWORKS SL	B20719514	IBILG.	2019	1	5107	0	154,57 €
INSTALACIONES ARKALE CB	E20544979	IBILG.	2017	1	4980	0	201,89 €
INSTALACIONES ARKALE CB	E20544979	IBILG.	2018	1	5074	0	205,32 €
INSTALACIONES ARKALE CB	E20544979	IBILG.	2019	1	5119	0	210,05 €
JAIZKIBEL ITSASKETA SL	B20718482	IBILG.	2018	1	5535	0	150,05 €
JAIZKIBEL ITSASKETA SL	B20718482	IBILG.	2019	1	5593	0	154,57 €
MAIO,GONCALVES,LUISA	X0780564J	IBILG.	2015	1	6146	0	88,95 €
MAIO,GONCALVES,LUISA	X0780564J	IBILG.	2016	1	6314	0	89,13 €
MAIO,GONCALVES,LUISA	X0780564J	IBILG.	2017	1	6407	0	89,13 €
MAIO,GONCALVES,LUISA	X0780564J	IBILG.	2018	1	6567	0	90,65 €
MAIO,GONCALVES,LUISA	X0780564J	IBILG.	2019	1	6673	0	92,74 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	ZABOR.	2019	1	2602	0	49,55 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	ZABOR.	2019	2	2613	0	49,55 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	ZABOR.	2020	1	2624	0	49,95 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	ZABOR.	2020	2	2645	0	49,95 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	O.H.Z. Hiritar	2019	1	3186417B	0	193,63 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	O.H.Z. Hiritar	2019	1	5179359B	0	382,90 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	O.H.Z. Hiritar	2020	1	3186417B	0	197,20 €
MAYOR,CASTRO,FRANCISCA	15000667K	O.H.Z. Hiritar	2020	1	5179359B	0	389,95 €
Pereira,Zumalacarregui,Oscar	15158564T	Kirol Ekintza	2015	1	38	0	12,00 €
PEREZ,AIZPURUA,JUAN MANUEL	15887713A	O.H.Z. Hiritar	2019	1	5072376R	0	602,47 €
PEREZ,AIZPURUA,JUAN MANUEL	15887713A	O.H.Z. Hiritar	2020	1	5072376R	0	604,61 €
GUZTIRA PRESKRIBATUAK							7.387,23 €

Ibintza Iragorri Iriarte, ondoren landuko den gaian interes gatazkagatik batzarretik kanpora atera da.

- VIII-

2025. URTERAKO OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOKO EKARPEN EKONOMIKOA

Alkatearen adierazten du, diru ekarpena bat dela, aurrekontuan jasotakoa eta bozketan onartutakoa.

Beraz, Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordeak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Batzarrak, gehiengoz, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari 979.508,74 €-ko ekarprena onartzea. Gastua udal aurrekontuko 1 0313.481.323.00.01.2025 (AD-2/ 2025) diru-atalaren kontura izango da.

Ordainketari dagokionez, onarpenarekin batera zenbateko guztiaren erreserba egingo da eta hilabetez-hilabete 69.964,91 €-ko zenbatekoa ordainduko da, ekaina eta abendua izan ezik, hauetan zenbatekoa bikoitza izango delarik (139.929,82 €).

Ekarpena sektore publikoko langileen ordainsarien gehieneko igoerara baldintzatua egongo da. Aipatu ordainsarien igoera txikiagoa balitz doiketa egingo litzateke ekarpenean.

Bozketa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia	1	Ibintza Iragorri Iriarte

Gaia gehiengoz onartu da aldeko 14 botorekin (EHBildu eta EAJ/PNV) eta abstentzia batekin (EHBildu taldeko Ibintza Iragorri Iriarte zinegotziarena, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko langilea delako.)

Ibintza Iragorri Iriarte zinegotzia batzarrera sartzen da.

-IX-

2025eko KONTRATAZIO PLANAREN ONARPENA

Alkateak dio, plan oso anbiziotsua prestatu dela, 27 lizitazio aurreikusten dira. Aipagarrienak, udal eraikinetako garbiketa zerbitzua, Rafael Pikabea etorbidea berritzeko obra, Arruan ur oditeria aldatzeko obra, Elizalde transpatioa, Altzibarreko gune estalia, hiri garbiketa eta etxe hondakinen bilketa, hau azpimarratzeko kontratu oso potentea dela, eta azkenik udaleko energiaren hornidura. Aurreko urteko planaren ebaluazio-memoria ere aurkeztu da.

Idazkariak hartzen du hitza. Aipatzen du aurreko urteko lizitazio bikoitzak aurreikusten direla, baina kontua da aurreko urtean planetik kanpo 13 kontratazio egin zirela hau da, aurtengorako aurreikusten diren kopuruuen oso antzekoa. Gauza da, espero dela aurten planifikazio hobea egin izana eta dagoeneko plangintzan sartuak daudela bestela kanpo geratuko liratekeen horiek. Balioan jarri nahi du egindako esfortzua, batik bat, kontratuak erregularizatzeko momentuan.

Bestalde, badira bizpahiru zerbitzu handi berritu beharreko kontratuak.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordeak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehena.- 2025eko kontratacio plana onartzea, eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena.- 2025eko kontratacio plana Oiartzungo Udalaren kontratatzalearen profilean argitaratzea, bai eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, SPKLren 28.4. artikuluak zehaztutako moduan

-X-

OIARTZUNGO UDALEKO HERRITARENTZAKO ARRETA ZERBITZU INTEGRALA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA

Alkateak adierazten du, ordenantza honen xedea udalak ireki nahi duen herritarren arretarako gune berriak eskatzen duen barne lanketaren ondorio izan behar duela. Arautegi honen helburua da, herritarrekiko beste harreman eredu bat edukitzea, funtzionamendu elektronikoan garapenak egitea eta ahalik eta zerbitzu hurbilena edukitzea. Honek denak, nahiz eta kanpotik xinplea iruditu, barrengo antolaketa handia eskatzen du.

Idazkariak azpimarratzen du, ordenantza hau eta aurrekoa, pasa den hilabetean onartu zen araugintza planean aurreikusitakoak direla, hortaz, araugintza plana ere asmo handikoa dela baina hasiera ona eman zaiola, dagoeneko urtarrila izanda, bi ordenantza martxan jarriak daudelako.

Jende aurreko kontsulta publikoa egin da, alegaziorik ez da aurkeztu eta orain ordenantza hau informazio publikoan egongo da 30 eguneko epean eta alegaziorik aurkezten ez bada, Udal Batzatik berriz pasa gabe, onartutzat joko da. Alegazioak badaude, berriz martxoko Udal batzatik pasako litzateke.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordeak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehena.- Hasierako onespina ematea Oiartzungo Udaleko herritarentzako arreta zerbitzu integrala arautzen duen ordenantzari, expediente an jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun baliodeuneko epean, administrazio-expediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denurren egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiak Udal bulegoetan expediente aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendaurrean erakusgai egoteko epea inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe igarotzen bada, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

-XI-

ANTOLAKETA ETA KONTU BEREZIEN BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORRAREN MAIZTASUNA ALDATZEA

Alkateak aipatzen du, urte hasieran batzordeak eta egutegiak antolatzen direla, baina kasu honetan aldaketa bat proposatzen da. Batzorde hau Udal Batzordetik gertuago egoteko, hilabeteko hirugarren astera pasako da eta osteguna egokitu zaio. Beraz, hileko 3. ostegunetan izango da, urrian eta azaroan izan ezik, orduan batzorde bana izango da, aurrekontuak eta ordenantzak prestatzeko garaia izaten delako.

Hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordeak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Antolaketa eta Kontu Berezien Batzorde Informatzaile Iraunkorraren ohiko bilkuren maiztasuna aldatzea, horrela:

- Hileko 3. ostegunean, goizeko 8:30etan. Urrian eta azaroan ohiko bilkura egingo da, ere, hileko 1. ostegunean, goizeko 8:30etan.

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki-oholean eta udalaren webgunean argitaratzea.

-XII-

2025EKO UDAL EGUTEGI INSTITUZIONALA

Alkateak dio, aurreko egutegiari jarraipena emanet oraingoan ere, batzorde guztien datak zehaztuta agertzen dira, ahaleginak egin dira denen hobe beharrerako opor garaiak eta jai egunak hurbiltzen direnean Udal osoko bilkurak aldatzen.

Idazkariak gehitzen du, abenduko Udal oso bilkura normalean gabonen aurreko astean egiten dela, baina 17 oso goiz delakoan, abenduak 22ra aurreratzen dela, nahiz eta astelehena izan. Bestalde, aste santuko eta Pazkoa astea libratzen dira eta uztailean ere 23ra aurreratzen da.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordeak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra.- 2025eko udal organo kolegiatu iraunkorren (Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta Batzorde Informatiboak) egutegia onartzea, eranskinean doan moduan.

-XIII-

2024 URTEARI DAGOKION UDAL INBENTARIOAREN ALDAKETAK ETA EGUNERAKETA

Alkateak aurreko urteko inventarioan egindako aldaketa aipatzen ditu.

Lehena, lehen Sabadell bankua zegoen lokala eskuratu duela udalak.

Bigarrena, Ergoingo espaloi zati bat bereganatu duela.

Hirugarren, Emieta baserriko bidea pribatua dela egiaztu zen, lehen herri bidea zena egun baserriari lotua geratuz pribatu bezala. Hala ere, udalak bere instalazioen mantenerako bidea erabiltzea beharrezkoa duenez, erabilera eskubidea bermatu nahi izan du, eta erabilera eskubide hau (*servidumbre*) ere inbentarioan sartu da.

Azkena, Gurutzen Pablitoenea partzelako baso eremu bat eskuratu duela udalak, natura ikuspegitik interes berezikoa konsideratzen delako.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Bereziak 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Bakarra: Onartzea honekin batera jasotako 2024ko altak, bajak eta aldaketak

Guzti honen berri eman zaio Udalbatzari.

-XIV-

**BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN
(ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK) ETA
PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA**

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

- Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebaudenak:

2024ko abenduaren 14tik 2025eko urtarrilaren 23a arte.

Zk. 2024/1903tik 2024/1989 - 2025/1etik 2025/128ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2024ko abenduaren 17an eta urtarrilaren 14ean, hain zuzen ere.

- Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2024ko abendua:

Jardunaldiak, aurkezpenak	1227,69	
Bazkariak, luntxak,	453,60	
Bidaiaik	472,49	
Ikurriñak,garaikurrak,plakak,oparia k	376,42	
Guztira	2.530,20	2025eko urtarrila:
Bazkariak, luntxak,	536,50	
Bidaiaik	56,47	
Guztira	592,97	

ESKARI-GALDERAK.

Ez da eskaerarik ez eta galderarik egin.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:30ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Xabier de la Mota

ERANSKINA.-

OIARTZUNGO UDALA ETA SOINUENEA FUNDazioaren arteko HITZARMENA

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

BILDURIK

Alde batetik, Joana Mendiboure, Oiartzungo alkatea, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bestetik, Joseba Zabaleta Arbelaitz jauna, 15.258.654 V zenbakiko nortasun-agiria duena, Soinuenea Fundazioaren izenean eta ordezkaritzan diharduena bere ahaldun gisa eta helbidea Kalexa Plaza 4, 2. B, OIARTZUNen duena.

Beren karguek berariaz eskaintzen dizkieten funtziak erabiliz, beraz, elkarri onartzen diote lankidetza hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasuna eta xede horrez,

AZALTZEN DUTE

- I.- Soinuenea Fundazioa titulartasun pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko Fundazioa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-329 zenbakia duena, IFZ G75058776 duena, 2011ko abenduaren 22an notarioaren aurrean eratuta. Bere helburu nagusia herri musika sustatzea eta zabaltzea da, nagusiki Euskal Herri Musika. Helburu hau, bere modalitate ezberdin eta herri-musikaren inguruan ikerketa, trebakuntza, bilketa, kontserbazioa, zabalkundea eta antzeko gainerako jardueren bitartez garatzen du.

Soinuenea Fundazioak eskaintzen dituen jarduerak Oiartzunen errrotuta daude, 2002az gerotik, bertan Herri Musikari buruzko Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa irekia baitu.

Oiartzungo Udalak, Kultura Sailaren bidez, mota askotako kultur programa eta proiektuak laguntzen ditu. Proiektu honek zehazki, herri musikaren sustatzea eta zabaltzea, nagusiki Euskal Herri Musika zabaltzea bultzatzen du.

Oiartzungo Udala, sail ezberdinen bidez, beste erakunde publiko eta herriko taldeekin batera elkarlanean aritzen da kulturaren sustapenean. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoak, 17.1 20) artikuluan xedatutakoaren babesean, udalak eskumenekoak dira, eskumen propio gisa, beren lurralteko eremuan Kultura eta kultura-jarduerak antolatzen eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamendua kudeatzea. Hauxe da azken finean hitzarmen honen xedea eta horretan datza interes publikoa.

- II. 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, herri administrazioen arteko hitzarmenak eta baita entitate pribatuekin hitzartutakoak arautzen ditu eta horien gutxieneko edukia zehazten du. Ildo horri eutsiz, baldintza bat da hitzarmenean berariaz herri administrazio sinatzaileen jarduna oinarritzeko aginpidea definitzea.

Hala, udalerriek, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoak, 17.1 20) artikuluan xedatutakoaren babesean, udalak eskumenekoak dira, eskumen propio gisa, beren lurralteko eremuan Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko

kultura-ekipamendua kudeatzea. Hauxe da azken finean hitzarmen honen xedea eta horretan datza interes publikoa.

- III. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuak buruzkoak, 6.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eremutik salbuetsiak geldituko dira tokiko erakundeek sinatzen dituzten hitzarmenak, betiere edukia lege honek ala administrazio arau bereziek araututako kontratuak barruan ez badago. Hitzarmen honen edukia ez da obra, hornidura edo zerbitzuen kontratuaren berezkoa, ezta legezko testu horretan arautua dagoen gainerako kontratuena ere.
- IV. Hitzarmen honen, Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren, udal aurrekontua gauzatzeko oinarrien eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, Herri musika eta herri soinu-tresnen ikerketa eta ezagutza bultzatzea, Herri musikaren eta herri soinu-tresnen ondarea gordetzea bultzatzea, Herri musika eta herri soinu-tresnen ezagutza zabaltzea duen helburu duen dirulaguntza lerroa jasotzen du, eta beharrezkotzat jotzen da dirulaguntzaren xede den jarduera, hitzarmen honen lehen klausulan definitu eta zehazten dena.
- V. Aurreko guztia kontuan hartuta, alderdi sinatzaileek beharrezkotzat jotzen dute lankidetza hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena klausula hauetan gauzatuko da:

KLAUSULAK

Lehena.- Lankidetza hitzarmenaren xedea eta epea.

Hitzarmen honen xedea da Soinuenea Fundazioari dirulaguntza ematea, herri musikaren sustatzea eta zabaltzea, nagusiki Oiartzunen bultzatzeko eta orohar Euskal Herri Musika bultzatzeko eta bertan Herri Musikari buruzko Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa irekiaren jarduerak eskaintzeko.

Halaber, hitzarmen honen bidez Oiartzungo Udalaren eta Soinuenea Fundazioaren arteko lankidetzaren baldintzak zehazten eta arautzen dira.

Hitzarmen honen indarraldia azken sinaduraren egunetik 2025ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Bigarrena.- Elkarte onuradunaren betebeharak.

2.1.- Soinuenea Fundazioak martxan dituen Herri Musikari buruzko Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa irekiaren jarduerak, publikoari irekiak jartzeko konpromisoa adierazten du.

Soinuenea Fundazioak bere ondasunak (Juan Mari Beltran jaunak Soinuenea Fundazioari bere notario aurreko Fundazioaren eraketan utzitako herri musika tresna eta dokumentazio bildumaren erabilera eskubidea) zerbitzu publikora (Oiartzungo herritarren eta bisitarien zerbitzura) jartzeko konpromisoa adierazten du.

2.2.- Soinuenea Fundazioak honako hau eskainiko du:

Jendaurreko ordutegia:

- Astearteak eta asteazkenak

Goizez 10:00-14:00

- Ostegunak, ostiralak eta larunbatak:

Goizez 10:00-14:00
Arratsaldez 15:00-18:00

- Dokumentazio zentroaren ikerketa eta kontsulta atalak: Dokumentazio zentroan kontsultak egitea aurretik hitzartu behar da.

2.3.- Soinuenea Fundazioak hitzarmen honetan ezartzen diren oinarriei eragiten dieten edozein aldaketa Oiartzungo Udalari komunikatu beharko dio.

2.4.- Soinuenea Fundazioak bere gain hartuko ditu bere lanak garatu ahal izateko beste pertsona edo erakunde batzuekin egiten dituen kontratuzko harremanak, Udala lan-erantzukizun guztietatik salbuetsiz.

2.5.- Oiartzungo Udalak eragileekin koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko dituen foroetan parte hartzea horrela dagokionean (Kultura Saileko egitasmo zehatzak, jai-batzordea,...).

Hirugarrena.- Baliabideak

Soinuenea Fundazioak bere giza-baliabide propioekin garatuko du Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa irekiaren jarduera.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren ezaugarriak.

4.1.- Oiartzungo Udalak, Soinuenea Fundazioari, dirulaguntza emango dio herri musikaren sustatzea eta zabaltzea, nagusiki Oiartzunen bultzatzeko eta orohar Euskal Herri Musika bultzatzeko.

4.2.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Oiartzungo Udalak Soinuenea Fundazioari, 111.600 € ko dirulaguntza emango dio bere jarduerak bultzatzeko eta ordainketa udal aurrekontuetako 0331.481.333.00.08 eta 0331.481.334.00.03 partidei egotziko zaie.

4.3.- Dirulaguntzaren ordainketa.

Ordainketa-egutegia:

- Hitzarmena sinatzean: otsailean kopuru osoaren % 50a.
- abuztuan kopuru osoaren % 30a
- 2026ko otsailean: kopuru osoaren % 20a (urteko gastuen justifikazioa aurkeztean).

4.4.- Soinuenea Fundazioak jasotako dirulaguntza onuradunaren xedean aipatutako ekintzak finantzatzeko erabiliko du.

4.5.- Onuradunak proiektuaren aurrekontuaren ehuneko zenbat finantzatu behar duen adieraziko du, dela bere finantzabideekin dela beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen bitartez.

Bosgarrena.- Dirulaguntza emateko prozedura

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 28. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da, eta dirulaguntza hitzarmen honen bidez gauzatzen da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a) eta 28. artikuluetan adierazitakoari jarraiki, Oiartzungo Udalaren 2025ko ekitaldirako aurrekontuan modu izendunean aurreikusitako dirulaguntza baita.

Seigarrena.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Hitzarmen honen arabera Udalak ematen duen dirulaguntza, bertan jasotako klausulez gain, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, hura garatzen duen erregelamendua, dirulaguntzen udal ordenantzak eta administrazio zuzenbideko gainerako arauak arautuko dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Zazpigarrena.- Onuraduna

Dirulaguntza honen erakunde onuraduna Soinuenea Fundazioa da, eta horrek berekin dakarren laguntza modalitatea da hitzarmen honen xede den proiektua gauzatzeko behar den diru kopurua ematea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 2.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren jarraipena (Batzorde mistoa).

8.1. Hitzarmen hau ikuskatu eta hobe jarraitzeko, batzorde mistoa eratuko da eta alderdi sinatzaile bakoitzak bi ordezkari izango ditu.

Batzorde mistoaren bileren helburuak, besteak beste, honakoak izango dira:

- Hitzarmen honen gauzatzearen jarraipena eta sustapena egitea.
- Hitzarmenaren interpretaziotik eta gauzatzetik sortutako arazoak konpontzea.

8.2. Batzorde mistoa edozein alderdik eskatu ostean bilduko da, eskatu eta hurrengo 7 egunen buruan.

Bederatzigarrena.- Ekintzen eta dirulaguntzaren justifikazioa.

9.1. Soinuenea Fundazioa hitzarmenarekin lotuta dauden aktibitateen informazio garden eta argia Oiartzungo Udalaren esku uzteria konprometitzen da.

9.2. Hitzarmen honen baitan ematen den dirulaguntzaren justifikazioa, justifikazio kontu baten bidez egingo da. Justifikazio kontuak ondoko agiri edo dokumentuak izango ditu:

- Hitzarmen honetarako dirulaguntzaren helburu diren jarduerak azaltzeko memoria, lortutako emaitzen balorazioa eta hala badagokio, etorkizuneko lan ildoen azalpena.
- Azterlan, programa, argitalpen, iragarki txartel eta lagunza ekonomikoaren ondorioz garatutako jardueran sortu den dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bat.
- Diru-sarreren eta gastuen balantzea.
- Fakturen eta ordainketa ziurtagirien kopiak.

9.3. Hitzarmen honen baitan ematen den dirulaguntzaren justifikazioa 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

Hamargarrena.- Dirulaguntza egiaztatu eta itzultzeko jarduketak.

- 10.1. Soinuenea Fundazioa Udalak egin ditzakeen egiaztatze jarduketen mende egongo da, Udalak emandako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorean eta hura garatzen duen erregelamenduan xedatutakoaren arabera.
- 10.2. Dirulaguntzaren onuradunak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako betebeharra betetzen ez baditu, emandako dirulaguntza itzuli beharko du, larritasuna kontuan hartuta, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorean araututakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe lege horren arabera ezar daitezkeen zehapenak.

Hamaikagarrena.- Antolatutako jardueren izaera eta sortutako materialen erabilera.

- 11.1. Soinuenea Fundazioaren jarduera hauen antolaketaren helburua ez da onura ekonomikoa lortzea, proiektuaren kostua ordaintzea baizik.
- 11.2. Soinuenea Fundazioak bere jardueren ondorioz sortzen diren paperezko zein multimedia edukiak Oiartzungo Udalak erabiltzeko baimena ematen du, beti ere egilea zein den aipatuz eta erabilera ez komertzialerako bada.

Hamabigarrena.- Hizkuntzen erabilerarako irizpideak.

- 12.1. Irizpide orokorrak. Onuradunak Udalarekin eta herritarrekin duen harremanean irizpide orokor hauek jarraitu beharko ditu.
 - Udalarekin harremana euskaraz izango da:
 - Udal langileekiko ahozko harreman guztiak euskaraz izango dira (bilerak, aurreko harremanak, telefono bidezkoak...).
 - Udalarekiko idatzizko harremanak euskaraz egingo dira (jakinarazpenak, posta elektronikozko mezuak, txostenak...).
 - Herritarreko harremana euskaraz izango da, euskaraz ez dakitenen hizkuntza-eskubideei kalterik egin gabe:
 - Hizkuntz paisaia
 - Herritarren bistan jarri beharreko agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz egongo dira.
 - Jarriko den publizitatea euskaraz egongo da.
 - Ahozko harremana
 - Gauzatuko den jarduera euskaraz izango da.

- 12.2. Irizpide bereziak. Onuradunak jarraian azaltzen diren ekintzetako bat antolatzen duenean irizpide bereziak kontuan hartu beharko ditu.

Hitzaldiak: Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik ondoriozta daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatuko balitz, hizlari elebidunak hobestea, - hizlaria euskalduna izatea ezinezkoa balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea- euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespeta daitezen.

Kasu horretan, ekintzaren propaganda euskaraz egingo da, eta berariaz aipatuko da ekintza ez dela euskaraz izango. Herritarrei ez zaie inolako mugarririk jarriko euskaraz jarduteagatik, eta antolatzaileak arduratu beharko du parte hartzaleek elkar ulertzea.

Ikastaroak: Udalak Soinunea Fundazioarekin elkarlanean diruz laguntzen dituen ikastaroetan irakasteko ezinbesteko baldintza izango da irakasleak euskaldunak izatea.

Hamahirugarrena.- Parekidetasun irizpidea.

- 13.1. Soinunea Fundazioaren jardunean parekidetasun printzipioa bultzatuko da. Antolatzen dituzten ekimen, jarduera eta programetan parte hartze datuak sexuagatik desagregatuta jaso eta udalari aurkeztu beharreko memorietan informazio hori emango zaio.
- 13.2. Dokumentazio eta jarduera guztian hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistak erabiliko dira.
- 13.3. Genero ikuspegia txertatzeko ekimenak antolatuko dira eta datuen bilketan ere generoaren arabera desagregatuta.

Hamalaugarrena.- Ingurumen irizpideak.

Soinunea Fundazioaren jardunean, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dira kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinaren sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamabosgarrena.- Datu babesia.

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera ez da beharrezkoa Oiartzungo Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea.

Horrela, debekatuta dago Oiartzungo Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.

Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko, eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariori gertatutakoa berehala jakinarazteko.

Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonei ez ezagutaraztera, transferitza, ematera edo jakinaraztera, eta betebehar hori Oiartzungo Udalarekin duten harreman juridikoa amaitu ondoren mantenduko da.

Oro har, Oiartzungo Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Dena den, lankidetza hitzarmen hau betetzearekin zerikusia duten datu pertsonalen eskubideak (atzipena, zuzenketa, deuseztatzea, tratamendua mugatzea, eramangarritasuna, kontra egitea eta antzekoak) Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babestearen inguruokoak; 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, eta araubidezko gainerako lege xedapen aplikagarriek xedatutakoarekin bat arautuko dira.

Hamaseigarrena.- Hitzarmena indargabetzea.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoia izango da erakunde onuradunak ez betetza dirulaguntzaren ondorioz bere gain hartutako betebeharrok, eta, ondorioz, itzuli egin beharko du emandako dirulaguntza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorean xedatutakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe ezar daitezkeen zehapenak.

Hamazazpigarrena.- Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio eskuduna

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta interpretazioaren, betearazpenaren eta ebazpenaren inguruaren sortzen diren arazoak administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eta auzitegiiek ebatziko dituzte.

Adostasunaren lekuko, hemen ordezkatutako alderdiek lankidetza hitzarmen hau sinatzen dute goiburuan adierazitako datan eta tokian.

Oiartzungo Udaleko alkatea

Soinuenea Fundazioaren ahalduna

Joana Mendiboure

Joseba Zabaleta

Oiartzungo Udaleko Idazkaria

Xabier de la Mota Vázquez

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025ZZ200004-Hitzarmena/Hitzarmena ()
--------------------------	---------------------------------------

Sinatzalea 1 / Firmante 1: XABIER DE LA MOTA VAZQUEZ - 72512750Y
Data / Fecha: 2025/02/04 10:10:39

Sinatzalea 2 / Firmante 2: JOANA MENDIBOURE - X3747244S
Data / Fecha: 2025/02/04 11:01:17

Sinatzalea 3 / Firmante 3: 15258654V JOSE ZABAleta (R: G75058776)
Data / Fecha: 2025/02/05 12:09:55



EKS | CSV: ESKUca338701-da8d-44c6-87fe-29161bde97da

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>



OBRA TXIKIAK BURUTZEKO ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENAREN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

Udalerriko eraikuntza-jardunaren bolumena eta ezaugarriak ikusita, udalak eraikuntza-ordenantzan obraren komunikazio-araubidearen erregulazioa sartzeko garaia iritsi dela uste du, baldin eta aupatu obrak ez badute eraginik ez egiturau, ez kanpoko elementuetan, ez lizentzia behar duten barnealdeetan 2/2006 Legearen 207. artikuluaren eta Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hirigintza-araudi orokorraren 104. artikuluaren arabera.

Horrela, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 207.5 artikulan aurreikusitakoaren esparruan, administrazio-izapidetza sinplifikatzen duen aurretiazko jakinarazpen-sistema bat egituratzen da, baldin eta proiektu teknikoa aurkeztea beharrezkoa ez den garrantzi tekniko txikiko obrak eta ordenantzetan aurreikusitako beste jarduketa batzuk egin behar badira.

Eraikuntzari buruzko udal-ordenantzen aldaketa EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 75. artikulan ezarritakoaren arabera izapidetzen da, toki-araubideari buruzko legeriaren arabera, bereziki Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluaren arabera.

1. ARTIKULUA.- XEDEA

1.- Ordenantza honen xedea udal-lizentzia emateko egintzarik behar ez duten obra txikiak eskatzean aplikatu beharreko araubidea arautzea da.

Aldez aurreko lizentzia ez eskatzeak ez du salbuetsiko jarduketak indarrean dagoen hirigintza-araudira eta irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko betebeharretik, ez eta aplikagarri zaion edozein araudiren debekuak eta mugak errespetatzetik ere. Jakinarazpenean aurkezteak ez du legitimatuko udal-planeamenduaren eta hirigintza-ordenantzen aurkako obra eta erabilerarik.

2. ARTIKULUA.- APLIKAZIO-EREMUA

1.- Obra-komunikazioko araubidearen mende egongo dira, dagokion obra-lizentzia esku beharrik gabe, sukaldeak eta komunak eraberritzeko lanak, ateetan eta barne-leihotan unean uneko konponketak edo aldaketak, eta lurzoru, sabai edo paramentuen eta instalazioen amaierak berritzea, betiere egiturari, segurtasunari eta hartune orokorreai eragiten ez badiente.

2.- Inola ere ezin izango da higiezinaren barrualdea birbanatzeko obrarik edo kanpoko elementuen aldaketarik egin, ezta baimendu gabeko erabilerarik ere, ez eta EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. artikuluak eta Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 104. artikuluak berariaz lizentziaren mende jarritako jarduerarik ere.

3. ARTIKULUA. BAZTERKETAK



Araubide honek ez ditu babestuko antolamenduz kanpoko eraikinetan egindako obrak, ez eta udalerriko ondare kultural edo historiko-artistikoaren zati direlako babestu beharrekoak direnak ere.

4. ARTIKULUA.- PROZEDURA

1.- Prozedura udalaren sarrera-erregistroan idazki bat aurkeztean datza, eta bertan honako hauek jasoko dira:

- Eskatzailearen identifikazioa eta, hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzea.
 - Eskaera orria betetzea.
 - Lanen aurrekontua.
 - Aurreikusitako hasiera-, iraupen- eta amaiera-datak.
 - Leihoak aldatuz gero, egungo egoeraren eta amaierako egoeraren argazkia.
 - Arlo horretako legeria sektorialak hala aurreikusi duelako beharrezko den kasuetan, ikus-onetsitako segurtasunari buruzko oinarrizko azterlana aurkeztu beharko da.
- Eskabideak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio horiek zuzentzeko. Hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta espedientea artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

2.- Lanak egiteko baimena eskatzea eta lortzea, indarrean dagoen legeriaren arabera nahitaezkoak diren gainerako baimenei kalterik egin gabe ulertuko da. Baimen horiek interesdunak eskatu eta lortu beharko ditu.

3.- Obrak egin bitartean egin nahi den edozein aldaketa udalari jakinarazi beharko zaio aldez aurretik, eta dagokion administrazio-prozedura bete beharko da. Jakinarazitako neurriak gaindituz gero edo bestelako obrak eginez gero, diziplina-espedientea ireki ahal izango da, baldin eta hirigintzako arau-haustearen berezko elementuak badaude, lizentziarik gabe egindako lanak antzemateagatik, eta berehala gelditzeko agindu ahal izango da. Edozein udal-teknikarik eta udaltzainek izango dute obretarako sarbidea, aurkeztutako komunikazioarekin bat datozena egiazatzeko.

4.- Jakinarazpena aurkeztu eta 15 egun igaro ondoren inolako errekerimendurik jaso ez bada, obra baimendutzat joko da eta hasi ahal izango da, betiere indarrean dagoen legeria sektorialaren arabera nahitaezkoak diren gainerako baimenen kaltetan gabe.

5.- Eskatzaileak legez eska daitezkeen erantzukizun zibileko edo bestelako aseguruak izan beharko ditu.

6.- Obra aurkeztutako jakinarazpenean oinarritura egitea baimendutzat joko da, jabetza-eskubidea izan ezik, eta hirugarrenei kalterik egin gabe.

7.- Jakinarazpenean hasiera-datarik eta iraupen-datarik jartzen ez bada, lanak 30 eguneko epean hasi eta 3 hilabeteko epean amaitu direla ulertuko da. Epe hori igarotakoan, berriro jakinarazi beharko da, idatziz, udal-erregistro orokorrean.

8.- Obretan sortutako eraikuntza- eta eraispren-hondakinak egiteko unean indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera kudeatu beharko dira, gaur egun eraikuntza- eta eraispren-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretua.



9.- Lanak egitean, eraikuntzaren jardunbide egokiak eskatzen dituen neurriak hartuko dira, bai eta eraikuntzako obretako segurtasunari eta osasunari buruzko legerian eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusitakoak ere.

10.- Edozein modutan, laneko segurtasun baldintzak xedatzen dituzten arauak bete beharko dira.

5. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA

Obra horietako edozein egiteko bide publikoa okupatu behar bada, berariaz eskatu beharko da egintza horretarako baimena.

Bide publikoa edukiontzi bidez okupatzeko, obra txikien komunikazioarekin batera eskatzen denean, Udalari jakinarazi beharko zaio, horren berri emateko.

Jakinarazpenaren egunetik 7 egun igaro eta kontrako oharrik egin ez bada, bide publikoa edukiontzi bidez okupatzeko baimena eman dela ulertuko da.

6. ARTIKULUA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Errrotuluak, oharrek, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez.

7. ARTIKULUA.- INTERPRETAZIOA

Oiartzungo Udaleko hirigintza arloko zerbitzuei dagokie ordenantza hau interpretatzeko ahalmena. Horretarako, ordenantza honen menpeko eta baztertutako egintzei buruzko irizpideak eta argibideak ezartzen dituzten jarraibideak eman ahal izango dira.

8. ARTIKULUA.- TASAK ETA ZERGAK

Obra txikiaren aldez aurreko jakinarazpena obra txikitzaletzat hartuko da dagozkion tasak eta zergak likidatzeko, eta haren zenbatekoa ordenantza fiskaletan araututakoa izango da.

Obrak egiten diren bitartean aurkeztutako aurrekontuan aldaketaren bat gertatzen bada, eskatzaileak obraren benetako kostua adierazi beharko du obra amaitzean, dagokion likidazio osagarria egiteko.

Udal-zerbitzuek adierazpen horiek egiazkoak diren egiaztatu ahal izango dute, eta obrak egiten parte hartu duten pertsona guztiei aurrekariak, ziurtagiriak eta kostua zehaztea ahalbidetzen duen beste edozein dokumentu esku ahal izango diete.

9. ARTIKULUA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA



Udalak, jarduketa horiei dagokienez, ikuskatzeko, egiaztatzeko eta kontrolatzeko, hirigintza-antolamendua lehengoratzeko eta legeetan ezarritako zehatzeko ahalak gordeko ditu.

Horretarako, aurkeztutako komunikazioa, udal-erregistroko sarrera-zigiluarekin, obraren lekuan eskuragarri egon beharko da.

10. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen diziplina- eta zehapen-araubide erkidea eta horrekin bat datorren araudia aplikatuko dira.

11. ARTIKULUA.- EREDUAK

1. eranskin gisa erantsi da obra komunikatzeko eredu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dokumentu-ereduak. Alkatetzari ahalmena ematen zaio ordenantza hauek garatzeko behar diren dokumentuen eredu normalizatuak onartzeko eta aldatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA.

Udal-ordenantza hau indarrean jarri aurretik hasitako baimen-prozedurak eskabidea aurkezteko unean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, interesdunak, eba zpena eman aurretik, eskaeran atzera egin eta ordenantza berria aplikatzea erabaki ahal izango du.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70. artikuluaren arabera jarriko da indarrean.



Espedientearen kodea: 2025KO230001
Espedientearen gaia: 2025eko kontratazio plana
Titularra: Oiartzungo Udala

2025 URTEKO KONTRATAZIO PLANA

2025 EKO KONTRATAZIO PLANA								
ZK	SAILA	XEDEA	MOTA	BALIO ZENBATETSIAREN AURREIKUSPENA (BEZik gabe)	IRAUPENA	HARMO-NIZATUA	PROZEDURA MOTA	LIZITAZIORAKO AURREIKUSPENA
1	Obrak eta zerbitzuak	Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzua	Zerbitzua	3.083.107,01 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	BAI	Irekia	Urtarrila
2	Obak eta zerbitzuak	Rafael pikabean eta Tolarietan konponketa lanak	Obra	587.148,91 euro	6 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Urtarrila
3	Obak eta zerbitzuak	Altzibarko gune estalia	Obra	1.300.000 euro	5 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Urtarrila
4	Obrak eta zerbitzuak	Ertzainen biribilgunetik Arraguako biribilgunera bitarteko hoditeriaren aldaketa	Obra	298.856,60 euro	3 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Martxoa
5	Obrak eta zerbitzuak	Usategieta herri bidea konpontzea	Obra	112.631,25 euro	4 aste	EZ	Irekia erraztua	Apirila
6	Obrak eta zerbitzuak	Brigada kamioneta	Hornidura	80.000 euro	3 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Apirila
7	Obrak eta zerbitzuak	Elizalde eskolako patioaren eraldaketa	Obra	235.000 euro	2 hilabete	EZ	Irekia erraztua	Maiatza

8	Obrak eta zerbitzuak	Haurren jolas-eremuak eta aire zabaleko fitness eta kirol-ekipamendua duten eremuak ikuskatzeko, mantentzeko eta konpontzeko zerbitzua	Zerbitzua	100.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Ekaina
9	Obrak eta zerbitzuak	Oiartzungo bidegorrian, Txaragain ondoan, kanpoko pixatokiak dituen komun autogarbigarriaren mantenua	Zerbitzua	10.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia oso erraztua	Ekaina
10	Obrak eta zerbitzuak	Lanbarren zoladura	Obra	200.000 euro	Hilabete 1	EZ	Irekia erraztua	Abuztua
11	Urak	Efluentearen kantitatea eta kalitatea ingurune hartzailera neurtzeko ekipoen (sareak eta gainezkabideak) hornidura, BEEP esparruan, EBk finantzatua, NextGenerationEU	Hornidura	29.000 euro	Hilabete 1	EZ	Irekia oso erraztua	Otsaila
12	Urak	Ur kontagailuen hornidura, BEEP esparruan, EBk finantzatua, NextGenerationEU	Hornidura	60.500 euro	Urte 1	EZ	Irekia oso erraztua	Otsaila
13	Mendiak eta Ingurumena	Hiri garbiketa eta etxeeko hondakinen	Zerbitzua	5.800.090,90 euro	3 urte, urtebeteko 2	BAI	Irekia	Ekaina



		bilketa eta garraio zerbitzua			luzapenekin			
14	Mendiak eta Ingurumena	Oiartzungo udalerriko hiri, zerbitzu eta industria guneetako eremu publikoetan izurriteak sortzen dituzten animaliak hiltzeko zerbitzua	Zerbitzua	23.140,50 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia oso erraztua	Uztaila
15	Argiteria	Oiartzungo Udalarentzat energia elektrikoaren hornidura	Hornidura	1.600.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	BAI	Irekia	Maiatza
16	Giza baliabideak	Oiartzungo udal langileentzako lanerako arroparen hornidura	Hornidura	95.500 euro	2 urte, urtebeteko bi luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Martxoa
17	Giza baliabideak	Formakuntza- prestaketa Gizarte Zerbitzuentzat eta etxez etxezko langileentzat	Zerbitzua	24.000 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Apirila
18	Gazteria eta Kirola	Oiartzungo eskola kirola, Muittu eta eskola pilotaren koordinazioa eta herriko kirol eragileentzako kirol aholkularitza zerbitzua	Zerbitzua	188.000 euro	Urte bat, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia	Iraila
19	Euskera	Oiartzungo komertzioetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa	Zerbitzua	134.800 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Apirila
20	Euskera	Prosa eta poesia	Zerbitzua	8.000 euro	2 urte,	EZ	Irekia oso	Ekaina

		lehiaketako lan sarituen liburuxkaren bilduma diseinatzea, maketatzea, inprimatzea eta entregatzea			urtebeteko 2 luzapenekin		erraztua	
21	Euskera	Bertsolaritzaren bidez Oiartzungo gaztetxoen ahozko komunikazioa lantzeko egitasmoa	Zerbitzua	52.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Iraila
22	Berdintasun saila	Empalabramiento gizarte esku hartze proiektua	Zerbitzua	28.000 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Apirila
23	Gizarte zerbitzuak	Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	Zerbitzua	152.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia	Martxoa
24	Gizarte zerbitzuak	Babesgabezia eta arrisku egoera arina edo ertainean dauden adingabeei eta beraien familiei zuzendutako esku hartzeko zerbitzua	Zerbitzua	380.000 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia	Ekaina
25	Komunikazioa	Oiartzungo udal aldizkariaren, agendaren eta beste euskarri batzuen etxez etxeko banaketa eta kartelak herriko kaleetan jartzeko	Zerbitzua	34.512,38 euro	2 urte, urtebeteko 2 luzapenekin	EZ	Irekia oso erraztua	Urtarrila



		zerbitzua						
26	Informatika	Telefonia finkoa, telefonia mugikorra eta Interneteko sarbidearen hornidura	Hornidura	66.115,70 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Iraila
27	Udaltzaingoa	Bideozantzarako sistemaren mantenua	Zerbitzua	124.000 euro	Urte 1, urtebeteko 3 luzapenekin	EZ	Irekia erraztua	Martxoa

<i>Oiartzungo Udaleko herriarentzako arreta zerbitzu integrala arautzen duen ordenantza</i>	<i>Ordenanza reguladora del servicio integral de atención ciudadana del Ayuntamiento de Oiartzun</i>
HITZAURREA	PREÁMBULO
I	I
«Gobernantza» kontzeptuak botere publikoen jardunean eragina duten arauak, prozesuak eta portaerak izendatzen ditu, bereziki irekitasunaren, parte-hartzearen, erantzukizunaren, efikaziaren eta koherentziaren ikuspegitik. Printzipio horietan oinarritzen dira, batetik, gobernantza ona eta, bestetik, Europako gobernantzaren Liburu Zurian proposatutako aldaketak (gobernantzaren erreforma, eta lau aldaketa nagusi proposatzen ditu: herritarrok gehiago implikatzea, politika eta legedi eraginkorragoak definitzea, munduko gobernantzari buruzko eztabaidan konpromisoa hartzea eta, azkenik, politikak eta erakundeak helburu argietan zentratzea).	El concepto de «gobernanza» designa las normas, procesos y comportamientos que influyen en el ejercicio de los poderes públicos, especialmente desde el punto de vista de la apertura, la participación, la responsabilidad, la eficacia y la coherencia. Estos principios que constituyen la base de una buena gobernanza y de los cambios propuestos en el Libro Blanco de la Gobernanza Europea (reforma de la gobernanza y propone cuatro grandes cambios: implicar más a los ciudadanos, definir políticas y legislaciones más eficaces, comprometerse en el debate sobre la gobernanza mundial y, finalmente, centrar las políticas y las instituciones en objetivos claros).
Gobernantza publikoak aldebiko dimensioa dauka, barnekoa eta kanpokoa, eta elkarri ematen diote zentzua, lotutako eginkizunak direlako. Bien arteko nahitaezko lotura egituratzeko, kontuan izan behar da administrazio-antolaketa justifikatzen duen azken xede zerbitzu publikoa dela: herritarrok jarri behar dira harreman- eta zerbitzu-ereduen erdigunean, haien izango baitira politika eta zerbitzu publikoen azken hartzailak. Hortaz, gobernantzaren barneko dimensioa azken xede horren arabera pentsatu behar da. Kudeaketa publikoa modu jakin batean egin behar da, efikaziaz, efizientziaz eta gardentasunez agertu behar direlako gauzak kanpora.	La doble dimensión, interna y externa, de la gobernanza pública, solo adquiere sentido si la una es función de la otra. La obligada interconexión entre ambas debe articularse sobre la idea de que es el servicio público el fin último que justifica la organización administrativa: la ciudadanía debe situarse en el centro de los modelos de relación y de servicio, como destinataria última de las políticas y de los servicios públicos. Lo que significa que la dimensión interna de la gobernanza debe concebirse en función de esa meta final. La gestión pública debe hacerse de una determinada manera porque es necesario que se manifiesten al exterior en clave de eficacia, eficiencia y transparencia.
Administrazio publikoak bultzatzen dituen politiken eta zerbitzu publikoen kalitate, efikazia eta efizientziarako, ezinbestekoa da herriarentzako arreta eta proceduren izapideak une bakotzeko gizarte-premiei erantzungo dieten antolamendu, prozesu eta teknologietan oinarritzea, zeren eta gaur egungo inguruabarrik etengabe aldatzen baitira eta testuingurua gero eta ziurgabeagoa baita.	La calidad, eficacia y eficiencia de las políticas que impulsa la Administración pública, así como la de sus servicios públicos requieren ineludiblemente que la atención a la ciudadanía y la tramitación de los procedimientos se sustenten en una organización, unos procesos y unas tecnologías que den respuesta a las necesidades sociales de cada momento,

	en circunstancias cambiantes y en un contexto de incertidumbre cada vez mayor.
Funtsezkoa da transformazio digitala herritarrentzako arretarekin lotu eta koordinatzea; izan ere, kanal elektronikoa herritarrei zerbitzuak emateko beste kanal bat baino ez da.	La vinculación y coordinación de la transformación digital con la atención a la ciudadanía es clave ya que el canal electrónico no es sino un canal más de prestación de servicios a la ciudadanía.
Azken urteotan tokiko administrazioa, herritarrengandik hurbil dagoen administrazioa izanik, lanean aritu da herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta zerbitzu gehiago emateko.	Durante los últimos años la administración local, como administración más cercana a la población, ha venido evolucionando en la línea de mejorar y ampliar los servicios que presta a la ciudadanía.
Bestalde, nabarmena da herritarrek ere gero eta eskakizun handiagoak dituztela. Horri gasto publikoa murriztu beharra gehitzent badiogu, ideia berri bat sartzen da Administrazioaren zerbitzuan: kalitatea. Izan ere, pertsonei harrera egin eta haien eskaerak berehala erantzun badira, erakunde guztiaren kostuak murrizten dira eta, aldi berean, hobetu egiten da herritarrek administrazioarekiko duten irudia.	Por otro lado, la cada vez más evidente exigencia por parte de la propia ciudadanía, unida a la necesidad de reducir el gasto público, han introducido la idea de la calidad de servicio en la administración, debido a que atender a las personas resolviendo sus demandas con inmediatez reduce los costes de toda organización, además de proyectar una imagen más positiva de la administración hacia las mismas.
Helburu hori lortu ahal izateko, eta bidenabar, bere xedea komunitateari eta komunitateak etengabe izaten duen bilakaerari egokitu ahal izateko, Oiartzungo Udalak, zerbitzu publikoko erakunde den aldetik, tokiko berrikuntza abian jartzeko konpromisoa hartu du.	Para la consecución de dicho objetivo, el Ayuntamiento de Oiartzun, como entidad de servicio público, para adecuar su fin a la comunidad y a sus continuos cambios evolutivos, ha adquirido un compromiso de innovación local.
Hortaz, beharrezkoa den hausnarketa tartearen ostean, eta dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden hainbat eredu erreferentziatzat harturik, herritarrentzako arreta zerbitzu integrala sortzea proposatu da.	Todo ello, tras el oportuno espacio de reflexión y tomando como referencia los diversos modelos ya implantados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, propone la creación de un servicio integral de atención a la ciudadanía.
Administrazio publikoak bultzatzen dituen politiken eta zerbitzu publikoen kalitate, efikazia eta efizientziarako, ezinbestekoa da herritarrentzako arreta eta prozeduren izapideak une bakoitzeko jendarte-premiei erantzungo dieten antolamendu, prozesu eta teknologietan oinarritzea, egoera aldakorretan eta gero eta ziurgabetasun handiagoko testuinguru batean.	La calidad, eficacia y eficiencia de las políticas que impulsa la administración pública, así como la de sus servicios públicos requieren ineludiblemente que la atención a la ciudadanía y la tramitación de los procedimientos se sustenten en una organización, unos procesos y unas tecnologías que den respuesta a las necesidades sociales de cada momento, en circunstancias cambiantes y en un contexto de incertidumbre cada vez mayor.

<p>Hala ere, zerbitzu elektronikoak izate hutsak ez du berez efizientziarik sortzen, ezta administrazio-kargarik murritzen ere; aitzitik, prozesuak modernizatzea eta kanalak egokitzea eskatzen du, herritarrek erabilera masibo efikaza eta segurua lor dezaten. Transformazio digitala ez da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltze hutsa; izan ere, ezinbesteko da ziurtatzea prozedura eta zerbitzu publikoen digitalizazioak berekin dakarrela honako hau: prozesuen berringeniaritza, administrazioa simplifikatzea, herriarentzako kargak murritzea, eta hizkera argiko eta irakurterrazeko dokumentuak normalizatzea. Oro har, zerbitzu personalizatuagoak, erabilerrazagoak eta beharrizan partikularretara egokituagoak eskatzen dira.</p>	<p>Pero la mera existencia de servicios electrónicos no produce eficiencia ni reducción de cargas administrativas, sino que requiere de una modernización de procesos y adaptación de los canales para lograr un uso masivo eficaz, y seguro por la ciudadanía. La transformación digital no es la simple utilización de las tecnologías de la información y comunicación, sino que es imprescindible asegurar que la digitalización de los procedimientos y servicios públicos conlleva reingeniería de procesos, simplificación administrativa, reducción de cargas para la ciudadanía y normalización de documentos con lenguaje claro y de lectura fácil. En general, se demandan servicios más personalizados, más fáciles de usar y más adaptados a las necesidades particulares.</p>
<p>Bestalde, herritarrei kanal elektronikoan eman beharreko arreta bultzatu beharrak ezin du desagerrarazi beste kanal batzuetatik eskaintzen zaien arreta –urrez aurrekoa edo telefono bidezkoa-. Irispide elektronikoa izatea herritaren eskubidea da, baina, era berean, pertsona fisikoek administrazioarekiko harremanetarako kanala aukeratzeko duten eskubidea une oro bermatu behar da, eta zerbitzu horrek, nolanahi ere, une bakoitzean dagoen arrakala digitala kontuan hartu beharko du.</p>	<p>Por otra parte, el obligado impulso de la atención a la ciudadanía en el canal electrónico no puede hacer desaparecer la atención en otros canales como el presencial y telefónico. El acceso electrónico es un derecho de la ciudadanía, pero también el derecho de las personas físicas a elegir el canal de relación con la administración que debe garantizarse en todo momento, y este servicio deberá, en todo caso, tener en cuenta la brecha digital existente en cada momento.</p>
<p>Testuinguru horretan, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak Eskubide eta Printzipio Digitalei buruzko Europako Adierazpena onartu zuten 2022an. Pertsonak zentroan kokatuko dituen eraldaketa digital babestu, seguru eta iraunkorrarekiko konpromisoa adierazten du adierazpenak. Horretarako, elkartasuna eta integrazioa babesten ditu, konektitatearen, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gaitasun digitalen bidez, lan-baldintza justu eta bidezko batzuen bidez, bai eta lineako zerbitzu publiko dигitaletarako sarbidea ere.</p>	<p>En este contexto, el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión adoptaron en 2022 la Declaración Europea sobre los Derechos y Principios Digitales. La Declaración expresa el compromiso con una transformación digital protegida, segura y sostenible que sitúe a las personas en el centro. Para ello, respalda la solidaridad y la integración mediante la conectividad, la educación, la formación y las capacidades digitales, unas condiciones de trabajo justas y equitativas, así como el acceso a los servicios públicos digitales en línea.</p>
<p>Zalantzak gabe, gizartea harreman-formula berrietara doa, eta pertsonak eta haren arretak funtsezko zentzua dute beren baitan, batez ere informazio publikoa zabaltzeari eta eskuratzeari dagokienez.</p>	<p>Es indudable que la sociedad avanza hacia nuevas fórmulas de relación, en las que la persona y su atención adquiere un sentido primordial en sí mismo, en especial en el ámbito de la difusión y acceso a la información pública.</p>

Testuinguru horretan, Oiartzungo Udalak herritarren arretarako bere zerbitzua diseinatu du, honako ezaugarri hauekin:	En este contexto, el ayuntamiento de Oiartzun ha diseñado su servicio de atención ciudadana con las siguientes características:
